

OÑATIKO EAJ-PNV: “MADRILGO KUPOAREN NEGOZIAKETA PROZESUTIK 379.000€ ESKURATU DITU OÑATIKO HERRIAK”

- Jeltzaleen iritziz diru hori oñatiarren mesede eta onurarako jaso beharko litzateke, adibidez, udal zerga eta tasak jaitsi edo hobariak areagotzeko
- Ildo horretan, EH Bilduren gobernuak diru hori kaleratutako kale-garbiketako langileentzat epaitegiak ezarritako 240.000€ko kalte-ordaina ordaintzeko erabiltzea salatu du udal talde jeltzaleak

Oñatiko herriak 379.000€ eskuratu berri ditu Madrilgo KUPOaren negoziaketa prozesua dela-eta oñatiarren alde. EH Bilduk, EAJ-PNVren negoziaketa gogor kritikatu badu ere, behin dirua eskuratuta, ordea, ez du inolako zalantzarik izan diru hori erabiltzeko. Izan ere, jasotako kopurutik 240.000€ erabili ditu udal gobernuak Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak ezarritako kalte-ordaina ordaintzeko. Kalte-ordain hori EH Bilduk hartutako erabakiaren ondorio zuzena da; hain zuzen, 2016.urtean udal gobernuak erabaki baitzuen ordu arteko kale-garbiketa kontratua etetea. Erabaki horren ondorioz, 4 lagun langabezian gelditu ziren eta horiek ezarritako errekurtsuosi erantzuna izan da 240.000€tako kalte-ordainaren ordainketa.

Oñatiko EAJ-PNVren udal taldea langileei eragin dizkien kalteen konponbidearekin ados agertu da, ez ordea, EH Bilduren udal gobernuak hartutako erabakiarekin. Ildo horretan, gobernuak oñatiarrontzat jasotako dirua euren kudeaketa txarra ezkutatzeko erabili duela salatu zuten jeltzaleek azken osoko bilkuran. “Gainera, dirua erabiltzeko erabakia Alkate Dekretu bitartez eraman da aurrera, EAJ-PNVri beste proposamenik aurkezteko aukera ere eman gabe”, gehitu dute jeltzaleek.

Guzti hori kontuan izanik, EH Bilduren gobernuaren kudeaketa txarra kritikatu du beste behin udal talde jeltzaleak. “379.000€ak oñatiarren mesedetan erabili behar dira eta ez, inondik inora, udal gobernuaren kudeaketa txarra ezkutatzeko”, azaldu du udal taldeak. “Gure iritziz diru hori udal zerga eta tasak jaisteko erabiliko beharko litzateke, horrela Oñatiko familia bakoitzak gutxi gora behera 85€ko hobaria jaso ahal izango bailuke” amaitu du talde jeltzaleak.

OÑATIKO EAJ-PNVren UDAL TALDEA

Oñatin, 2017ko azaroaren 9an